


Altza

Gipuzkoako Auzo Elkarteen Bigarren Ihardunaldiak

Hil honen 25etik 28ra, Gipuzkoako Auzo Elkarteen Bigarren Ihardunaldiak egingo dira Altzako Auzo Etxean. Gipuzkoako auzo elkarteak gonbidatuak dira eta Estatutik etorritako zenbait ordezkari ere parte hartuko dute mintegi horretan.

Larraitz Garmendia (lfnoa.: 943-391267)



Altzan egingo dira Gipuzkoako Auzo Elkarteen Bigarren Ihardunaldiak. Euskal Herriko zenbait ordezkari gain, Estatutik etorritakoak ere izango ditugu auzoan.

Argazkia: Imanol Olegi

auzoan antolatu diren ihardunaldien helburuak hiru dira: batetik, Gipuzkoan lanean ari diren auzo elkarteen lana ezagutzera eman, bigarrenik auzo elkarte hauen arteko elkarlana sortzea, eta azkenik egiten duten lana nola gizarteratu aztertu nahi da.

Gaur egungo gizartean, auzo elkarteek bete behar duten papera eztabaidagai egongo da eta beren eginbeharra ere finkatzen saiatuko dira ihardunaldi hauetan. Hori dela eta, gure inguruan eta Europan gertatzen ari dena hizpide izango da.

Kezkei erantzunez

Antolatzaileek esandakoaren

arabera, auzo elkarteek zalantza asko dituzte zenbait gairi buruz: zer nolako erantzuna behar dute gure auzotako gertakariak, nola bete auzokide eta erakundeen arteko bitartekari lana, eta abar. Azken finean, topaketa hauekin elkarlana garatu eta bizigiroa errazten saiatuko dira.

Egitarauaren arabera, lau egun hauetan hitzaldiak eta mahainguruak izango dira eta auzo elkarteko kideez gain, politikariak ere ariko dira.

Ihardunaldietan parte hartu ahal izateko izena aldeztu aurretik eman behar da 943 35 41 35 telefono zenbakira deituta.

Egitaraua

Azaroak 25

19.30: Ihardunaldien hasiera-ekitaldia Casares kultur etxean.

Azaroak 26

18.30: Tolosako Amarozen Auzo Elkarteko ordezkari bat eta Cesar Manzanos (Bizilagun elkartearen garapena programetan jakituna) ariko dira.

19.30: "Auzo elkartearen egoera eta etorkizunerako aurreikuspenak" galari buruzko mahaingurua.

Azaroak 27

10.30: "Auzo elkarteak eta bizilagun elkartearen garapena" hitzaldia emango du Marco Mascriccionik

16.30: "Experiencias del desarrollo comunitario" gaia eztabaidatuko dute Andaluzia, Bartzelona, Galizia, Madril eta Gipuzkoako ordezkari batzuek.

Azaroak 28

Politikariak etorriko dira ihardunaldien bukaeran.



HONTZA ELKARTEA

Eliza kalea 5 • Tfnoa.: 943-46 82 37 • LOIOLA auzoa, Donostia

SAN CARLOS BORROMEIO

- Emakume eta gizonezko jantzigintza eta mihisedenda.
- Bainujantziak eta bikiniak denontzat.
- Donostiako preziorik onenak.

DENDA BERRIA!!!
Aita Larroka kalea 12
Tfnoa.: 943-271030

Olartzun kalea 7 • Tfnoa.: 943-284547